

Andoaingo ikasleek udalerrriaren diagnostikoa egingo dute Eskolako Agenda 2030aren baitan

- **Bi ikasturteko lana izango dute aurretik: lehenbizi udalerriko diagnostikoa egingo dute, eta ondoren esku-hartze plana diseinatu**
- **Herriko lau eskolek hartuko dute parte bertan**

Andoainen, 24-09-25.- 2024-2025 ikasturtean, ikasleak Garapen Jasangarrirako 11. Helburua lantzen hasiko dira: “Hiri eta komunitate jasangarriak”. Honela, Andoaingo 4 ikastetxek udalerriko diagnostikoa egingo dute sarean lan eginez.

Bi ikasturtetako lana izango dute ikasleek aurretik. Ikasturte honetan udalerriko diagnostikoa egingo dute, udalerriko egoera aztertuz. Hemendik ateratako ondorioekin eta proposamenekin, datorren ikasturtean esku-hartze plana diseinatuko dute. Udalerriko ikastetxeen artean elkarlanean eta zentro ezberdinetako ikasleen artean sareak eraikiz, proiektu komuna aurrera eramango da. Programaren protagonistak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleak izango dira. Aurrera eramango diren ekintzekin, adin guztietako ikasleak ahalduntzea, eragile aktiboak izatea eta sarean lan egitea lortu nahi da. Ikasturtearen amaieran, ikasleek ateratako ondorioak eta hobekuntza proposamenak aurkeztuko dizkiete udal ordezkariak, eta hauek, ikasleekin batera konpromezuak hartuko dituzte.